

HERNANIK kronika

2003 urtea
Urtarrilak 25
Larunbata
Alea: 677
www.hkronika.com

‘KORRIKA 13’ AURKEZTU DU AEKK ETA LAGUNTZAILE KANPAINA JARRI DU MARTXAN

AEK-k herritarren laguntza eskatu du gaur egungo egoera zaila gainditzeko

■ Euskerari eta AEKri egindako erasoek eta Garzonen erasoek euskaltegia egoera zailean utzi dute AEKren esanetan ■ Egoerari aurre egiteko 10 euroko laguntzaile bonoak daude salgai, “Korrikako kilometro sinbolikoak”.

AURTENGOKO Korrika apirilaren 4tik 13ra egingo da, Mauletik Iruñara. Seguruenera apirilaren 6an pasako da Hernanitik, goizaldeko 01:00ak aldera, Astigarragatik Urnietara bidean.

10 euroko bonoak

AEK egoera larrian dago, euskaltegiak berak jakitera eman duenez. Azken aldiko euskeraren kontrako erasoek eta AEKren kontrako matrikulazioa asko jeitsi dute Euskal Herrian (Hernanin igo egin bada ere) AEKk salatu duenez, eta Garzonek AEKren kontra hartutako neu- rrikin egoera ekonomikoa ere asko konplikatu zaie. Egoerari aurre egiteko herritarren laguntza eskatu du AEKk eta 10 euroko bonoak jarri ditu laguntza eman nahi dutenentzat. Bonoak “aurten- go Korrikako kilometro sin- bolikoak” izango dira. Bonoa



Aurreko Korrika Txikia Kale Nagusian gora.

egiten duenari txartel bat emango zaio eta txartel horrekin % 10-15-eko deskontuak izango ditu Euskal Herriko hainbat denda eta zinetan. Hernanin bonoak egin litezte Aralar, Rioja, Oindi, Kitto eta Egoki tabernetan; Urbia Kopia, Peña, Haizea eta Adarra dendetan; eta AEK

euskaltegian bertan, Laramendi kalean.

‘Ez dok Amairu’ gogoan

AEK 60. hamarkada bukan eta 70. hamarkada hasieran euskal kulturak bizitako ber-pizkunde gogoratu eta omendu nahi du aurtengo Korrikan. Garai hartako mu-

gimenduen artean Ez dok Amairurena azpimarratu du AEKk “diktadura baten pean euskal kantantzari eta kulturari bultzada itzela eman ziola”. AEK dio Korrikak gauza bera esan nahi diola gizarteari, “ezer ez dagoela amaiturik eta patuari aurre egin behar zaiola”. □

FUTBOLA

Gorengo taldea zulotik aterako duen garaipenaren bila aterako da gaur

■ Zubietan jokatuko du Zarautzen kontra, gaur 18:30etan ■ Ema- kumezkoen ligan Hernanik partidu erraza du Amara Berriren kontra.

HERNANIK Zarautzen kontra jokatuko du gaur Zubietan (Zubipe oraindik jokatzeko moduan ez dago-eta), 18:30etan. Garrantzitsua da gaurko partidua, hemendik aurerrako guztiak bezalaxe, eta Hernanik irabaztea lortzen badu postu asko igo litzazke sailkapenean. Zarautz bera 7garren dijoa eta 5 puntu- tara jarriko litzaiok Hernaniri. Ea

ba zaleak desiatzen duten txanpa hartzen duen Hernanik.

Hernani-Amara Berri

Emakumezkoen ligan sailkapeneko azkenaren kontra jokatuko du gaur Hernanik, 17:30etan, Urnietan. Hernani 3garren dijoa eta goiko taldeen bidea galdu nahi ez badu irabazi beharra dauka gaur. □

ERRUGBIA

Hernaniko hamabost jokalari gazte Euskadiko selekzioak konbokatuta

EUSKADIKO selekzioak preselekzio bat egingo du gaur kadete eta jubenil mailan. Hernanitik 15 jokalari konbokatu dituzte, 7 kadete eta 8 jubenil. Kadeteak dira: Mendizuri, Sarriegi, Etxeberria, Apaolaza, Orbegozo, Pelaz eta Garcia. Jubenilak dira: Aginagalde, Barrio, Otaño, Illarramendi, Leon, Garmendia, Holgado eta Majdzik. Preselekzio horretatik aterako da bi hilabete barru Espainiako txapelketa jokatuko duen Euskadiko selekzioa. □

**Etxerat elkarreak
Parisko gobernuaren
jokabidea salatu eta
Fleuryko espoxera
joateko dei egin du**

ETXERAT elkarreak prentsa ohar batean salatu duenez, Frantziako espoxetako bizi baldintzak oke- rrera egin dute azken hilabetean. Hori dela eta, presoak borrokan dira beren eskubideen alde, esate baterako Fleury-Merogisen, Euskal Herritik 911 kilometrotara. Presoek bisita orduak akumulatzeko eskatzen dute, beren senideak ikusi ahal izateko. Hernaniko Etxerat Fleury joateko dei egin du preso- ei elkartasuna erakustera, urtarrilen 31ean Amarrik aterako diren autobusetan. Izena emateko 699 82 91 98 telefonora deitu.

Bost dira Frantziako preso dau- den hernaniarrak: Gabino Etxeberria, J.A. Arrozpide, J.M. Olano, Alberto Rey eta Kepa Pikabea. Etxeratet salatu du sakabanaketa politi- koa dela-eta senide eta lagunek ehundaka kilometro egiten dituzte- la, eta istripuak eta gastu ekonomiko haundiak suposatzen duela horrek.

Bestalde, Noizko eguna bihar da Tolosan, kondaren 3/4ak beteak dituzten presoen askatasuna eska- tzeko. Hernaniko Etxerat joateko dei egin du. Eguerdiko 12:00- etan, Tolosako plaza Zaharrean. □

Saharako herriaren aldeko ekitaldia gaur

SAHARAREN aldeko ekitaldia izango da gaur Plaza Berrian, goi- zeko 11:00etan hasita. Udale- txeko Kooperaziorako Arloaren talde laguntzaileak antolatuta, Haima bat jarriko dute Plaza Berrian Saharako informazioa eta argazkiekin, eta Frente Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkarria ere Hernanin izango da gaur. Antolatzaileen esanetan, Saharak egoera kritikoa bizi du eta herritarren laguntza inoiz baino beharrezkoagoa du. Ekitaldian elkartasun sindu- dura emateko aukera izango da eta Saharan falta dituzten jakia uzteko ere bai. □

Antziola-Motor
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

18 urte Hernanin, zuekin Ford-eko gama guztiarekin
Modelo guztiak

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Orduetgia: Astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

IRUBIDE JATETXEA
Epele auzoa 7 - HERNANI
943 552 480
Mobila: 667 208 702

GALARRETA FRONTOIA
GALARRETA FRONTOIA
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTZE JAIALDIA:
1. partidua: Martinez - Lander / Ziganda - Barrenetxea II
2. partidua: Txapelketa: Ezkurra - Urko / Altuna I - Eizagirre
3. partidua: Altuna II - Aizpurua II / Bitoria - Etxabe
4. partidua: Matxin III - Badiola / Sarasua - Etxeberria II

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egontza: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Fax: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Hernaniko bi taldeak elkarren kontra jokatzen, Aristizabal kaleko lokalean.

Hernaniko bi xake taldeek igoera farea hasiko dute gaur

■ Hernani A bere taldeko lehenengo gelditu da, eta Hernani B laugarren ■ Zortzi talde ari dira igoera farea jokatzen eta hiru igoko dira probintziako lehen mailara.

HERNANIKO xake taldeak dore aritu dira liga guztian zehar, eta igoera farea jokatzeko klasifikatu dira biak, ligan lehenengo eta laugarren eginda. Gaur hasiko da igoera farea: Hernani Ak Eibar Bren kontra jokatuko du Eibarren, eta Hernani Bk Zarautzen kontra Hernanin, Aristizabal kaleko lokalean (Txantxilla eta Atsegindegi arteko aldapan, Udal lokaletan). Bi partidak gaur 16:00etan izango dira.

Hiru talde gora
Zortzi talde ari dira igoera farea jokatzen, hernaniarren taldeko lau eta kostaldeko taldektik beste lau. Orain arteko puntuek balio dute eta zortzi taldeetan puntu gehienarekin bukatzen duten hirurak igoko dira probintziako lehen mailara. Hernani Ak zortze puntu ditu orain artean eta Hernani Bk bost. Gerardo Plaza xake taldeko arduradunak Kronikari esan dionez, bere ustez, bi tal-

deek dituzte igotzeko aukerak. Beren taldea kostaldeko baino gogorragoa da eta orain beste taldeko ekipoen kontra jokatuko dituzte partida guztia. Talde bakotzean 7 jokalari daude. Hernani A: I. Esnaola, F. Esnaola, M. Apezetxea, J. Altuna Oxan, J. Garmendia Txuriya, B. Estevez, eta G. Plaza. Hernani B: J. Nabaskues, J.A Ijurko, E. Soto, H. Bereziartua, I. Zabala, Txarli eta T. Orellana. □

KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	N o n	N o iz	PELOTA	Taldeak	N o n	N o iz
Gorengoa	Hernani-Zarautz	Zubieta	Gaur,18:30	Esk. 2	Udaberri Txapelketa	Aeroiga	Bihar,10:30
Emak. Liga	Hernani-Amara Bemi	Umieta	Gaur,17:30	Pal. Go	Aeroiga /Saiasua -Ssebastan	Aeroiga	Bihar,15:00
1.Errejon	BetiGazte -Hernani	M. axtegi	Bihar,16:30	Pal. Go	Bumt.-Arizab./Hoz-M anchob.	Kirolegia	Gaur,15:00
Gazt. Nazi.	Olatzu -Hernani	Olatzabe	Bihar,11:00	Juben	Quijero -Lujanbo /Ram untxo	Kirolegia	Gaur,15:00
Gazt. O hor.	Bumend -Hernani	S.M. Iguel	Gaur,16:00	Kadet	Amita -Otegi/Gazteleku	Kirolegia	Gaur,15:00
Kad.O hor.	Hernani A baaM endi	Umieta	Gaur,15:45	Kadet	Lizarri /Bamantes -O jiel	Ijedo	Gaur,16:00
Kad.2garr.	Hernani-San Patricio	Umieta	Gaur,09:45	Kadet	Gure Txen /Erdioz -Ramos	Getaria	Gaur,10:00
Haur.O hor	Eibar-Hernani	M. intxeta	Bihar,12:00		Gipuzkoako Txapelketa		
ERRUGBYA				Infan	Eziza -Grajil/Andazpe	Kirolegia	Gaur,15:00
Jubenilak	EuskalSelk 8 hernaniar	Getxo	Gaur,10:00	Infan	Aeroiga /Gaminada -M uaoz	Aeroiga	Bihar,10:30
Kadeteak	EuskalSelk 7 hernaniar	P. Lentzia	Gaur,10:00		Euskadiko Txapelketa		
BOLEIBOLA				Kadet	Ekaiza /Gombarategi	Bera	Bihar,11:00
Kadeteak	P. M "Donostia" -Langile	P. Baroja	Gaur,12:30		Kronika Txapelketa		
Jubenilak	Lasarte -Hernani K E	Lasarte	Gaur,10:30		Gamendia -Zabala /Zapi-Etxebe	Tibseta	Gaur,16:00
XAKEA					Mujika -Egaaa /Gartzia -Kijea	Tibseta	Gaur,16:30
Gipuzko L	EibarB -HernaniA	Eibar	Gaur,16:00		Txutbi-Koldo /Pabb -Fernando	Tibseta	Gaur,17:00
Gipuzko L	HernaniB -Zarautz	Hernani	Gaur,16:00		Zehia -Urangain /Leganeta -Ezeiza	Tibseta	Gaur,17:30
WATERPOLOA							
2. Eusk L	CN Easo -HernaniB	Donostia	Gaur,20:30				

ZINEA BITERIN

'Historias minimas' eta 'Pastel magikoa'

BI pelikula botako dituzte asteburuan Biterin. Arratsaldeko 17:00etan *Pastel magikoa* filma izango da umeentzat eta gaeuan *Historias minimas* helduentzat, 22:30etan. Bihar 17:00etan sesioa Umeentzat, eta 19:30 eta 22:30etan helduentzat. □

ELORRABI
Sagardotegia
Bautista Goikoetxea Izagirre
Osiñaga auzoa
ELORRABI baseria
Tel. 943 336 990
Mobila. 630 429 674
20.120 HERNANI

OIALUME BIL TOKIA.
Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.
Bihar igandea:
Trakets
OIALUME BIL TOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38



LEHENENGO URTEBETETZEA

MANUELA IRAOLA OSTOLAZA

2002ko urtarrilaren 29an hil zen.

Manuelaren senitartekoek oroigarri meza eskaini nahi diogu eta ezagutu zenuten guztioi bertara etorri zaitezten gonbidatzen zaituztegu.

Oroigarri meza, **bihar, urtarrilak 26**, goizeko 12:00etan, Floridak San Jose Obrero parrokian.

Hernanin, 2003ko urtarrilaren 25ean.



LEHENENGO URTEBETETZEA

Manuel Olano Garai

2002ko urtarrilaren 2an hil zen, 88 urte zituela
Urak dakarrena urak darama, zuk emandakoa gurekin geratzen da

Bere sendiak haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etorri zaitezela, **bihar IGANDEA**, urtarrilak 26, goizeko HAMAIKETAN, San Juan Bautista parroki elizan egingo den urtebetetze mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin 2003ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRI MEZA

Juan Tomas Bergara Zubiri

2002ko urtarrilaren 7an hil zen, 83 urte zituela
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

-Goian bego-

Bere sendiak haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etorri zaitezela, **bihar IGANDEA**, urtarrilak 26, goizeko HAMAIKETAN, San Juan Bautista parroki elizan egingo den urtebetetze mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin 2003ko urtarrilaren 25ean.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkiztegi 8
943 551933
- Gauze: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6
943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. Goizeko 8:00etatik 15:00etara. Deitu: **943 55 58 40** (Arratsaldeko 19:00etatik aurrera).

Emakume bat behar degu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu: **646 07 93 43 - 943 21 68 98**.

Kotxe salgai. Aixan 400, (konduzitzeko ez du karnetik behar). Deitu: **943-550847**

Uber BideoDenda
Kardaberaz kalea 3, Hernani
Telfa: 943 33 50 48
Mobila: 635 71 72 12 (24h)

- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)
- Marrazki bizidunak, Zinekluba...
- Sandwich hotz eta beroak
- Goxoki eta litxarkeriak

Aukera
bereziak Otsailaren 3 arte

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 doha
- 30koagatik 20 dohan

Ordutegia
Astelehenetik igandera
11:30etatik 21:00etara

Zabaldu berria

“Legislatura osoan biolentziak amenazatuta ibili behar izan dugu Udaletxean eta ez dugu sekula Alkatearen elkartasunik jaso”

- PSE-EEko buruaren ustez, hiru urteotan Udal Gobernuak gestio txarra egin du eta atzera bota du oposizioaren edozein proposamen edo sugerentzia.

■ Alderdi Sozialistaren iritzirako, aurreko legislaturan aurreratuta utzitako proiektu eta iniziatiabak bidean gelditu dira, “Batasunak ‘rodilloa’ pasata”.

■ PSE-EE ari da lanean datozen Udal Hauteskundeei begira, baina, ez du argitu ez zein izango den alkategaia eta ez zer paktu eqin lezaketen.



Jose Ramon Chica eta Jose Mercille BSE-EEko zinegotziak Blanca

ABIADURA HAUNDIKO TRENA

“Alderdi Sozialista beti egongo da progreso eta eusteko moduko desarroiloaren alde. AHTa sinbolo estrategiko bat da garraioaren etorkizunean eta ez gara inoiz egongo Abiadura Haundiko Trena Euskadin izatearen kontra”.



UDAL TALDEEI ELKARRIZKETAK

EA-EAJ

OTSAILAREN 1EAN

SOZIALISTA ABERTZALEAK

OTSAILAREN 8AN

LEGEINTZALDIA bukatzeko bost hilabete eskas falta direla, Hernaniko Kronikak Udal Taldeen erreflexio eta iritziak bilduko ditu. Balorazioak, 2003ko Udal aurrekontuak eta inbertsio proposamenak, gatazka politikoa, Udal Hauteskundeak eta abar aztertuko dira elkarrizketetan.

Hona hemen Jose Morcillo PSE-EEko Udal Taldoko buruak egindako adierazpenak.

■ KRONIKA: Nola baloratzten du Partidu Sozialistak orain arte Udal Gobernuak egin duen gestioa?

MORCILLO: Aurreko Legislaturan Tripartitoak Hernani planifikatuta utzi zion oraingo Gobernu Taldeari. Proiektu asko utzi genituen martxan. Hernaniren etorkizuna beti gurekin generaman kezka

INGURUGIBOA

“Gure iritzirako bai
orain eta bai gero,
ingurugiroa gaur-
ko eta biharko
udal gobernuen
seilua izango da

Hernaniarrek
inongo bildurrik ez

Inongo bildurrik ez
izateko, argi
jokatu eta kontro-
lak egitea da
istripurik ez ger-
tatzeko modua.”

izan zen, eta utzi genuen testigantza biharko Hernani nola ikusten genuen industrian, ekonomian, alde sozialean eta hirigintzan. Batasunaren Gobernuak gehiengo absolutua erabili du eta egindako planifikazio guztia gelditu egin du. Adibideak hor daude: Her-

OPOSIZIOA

“Oposiziotik etorritako edozein proiektu edo sagerentziren aurrean, Gobernu Taldeak beti erantzun du krispazioz eta era guztietako akusazioekin”

naniko Arau Subsidiarioak berritzeko proiektua, Babes Ofizialeko etxeak egiteko terrenoak hartzeko Tripartitoak Jaurlaritzarekin sinatutako konbenioa aldatu egin zuten, eta abar.

Batasunaren Gobernuak gogotik pasa du gehiengo absoluaren rodilloa. Oposiziok etorritako edozein proiektu edo sugerentziaren aurrean Gobernu Taldeak beti erantzun du krispazioz eta era guztietako akusazioekin

Hiru urteotan, Batasunak bere antz-irudira eraiki nahi izan du Hernani, eraikuntza nazionalaz duen ikuspegি berrezi horretatik. Gure balorazioa erabat negatiboa da.

■ Eta, nola baloratzen duzu PSE-EEk oposizioan egingako lana. Zer iniziatiba eta proiektu bultzatu ditu eta zein bultzatuko ditu. Zein enmienda egingo dizkio 2003ko inbertsio proposamenari?

Alderdi Sozialistak legislatura honetan ez du bere lan instituzionala egiteko baldintzak izan.

■ Konfliktoa dela eta, zein da zinegotzi sozialisten egoera eta nola eragin dio horrek zuen ardura munizipalari?

alari?

“Tripartitoak proiektu asko utzi zituen martxan eta Batasunak, gehiengo absolutuarekin, gelditu egin du guk egindako planifikazio osoa”

tzia terroristak eta persekuzio biolentziak amenazatuta ibili behar izan dugu Udaletxeen, mugitzeko askatasunik gabe eta bitartekorik gabe. Ez dugu sekula Alkatearen elkartsunak jaso eta bere Gobernu Taldearenik ere ez.

BATASUNAREN ILEGALIZAZIOA

■ Aurreko Udal hauteskundeetan boto gehiena jasotako alderdiak litekeena da datozen hauteskundeetan aurkezterik ez izatea. Ikuspegi demokratiko hutsetik, zer iruditzen zaizu hori?

Erantzunik ez.

ZAHARREN EGOITZA

■ Gaur egunean, eta 95 Dekretua medio, Sandiusterriko Erresidentzia Diputazioaren konpetentzia da. Itxura denez, ordea, Udal eta Diputazioaren artean ez dago akordiorik zerbitzua finantzatzeko, eta Dekretuak eskatzen duen ampliagioa ordaintzeko ere ez. Zein da zuen jarrera gai honetan.

Jakinekoa da zerbitzu sozial espezializatuak Foru Aldundiarenak direla. Eudelen egin zen konpetentzia banaketa Udaletxe eta Diputazioaren artean eta horrek 95 dekretua ekarri zuen. Konpetentziak esan nahi du gestioa eta finantziaoa. Derrigorrean, gai honek bere denbora

GESTIOA

“Udal gestioa nolakoa izan den ikusita Alderdi Sozialistatik era bat balorazio negatiboa egiten dugu: Batasunak hiru urte hauetan bere antz-irudira eraiki nahi izan du Hernani, erakuntza nazionalaz duen ikuspegi berezitik”

UDAL HAUTESKUNDEAK

“Agrupazio lokalari da lanean Alkategai izateko kandidatoa zein izango den erabakitzeko. Hauteskunde ondorengo paktuari buruz, momentu honetan PSE-EEk ez dauka ezer esatekorik.”


beharko du egoera berrira egokitzan. Bide horretan, beharrezko da aldeek negoziatzeko jarrera izatea.

Sensibilidate haundia eskatzen duen terreno da eta langileen lana klabea da hor. Horrexegatik, Ongintzako buruak asko negoziatu behar du eta ez sindikatuekin etengabe konfliktoan egon, orain Hernaniko Ongintza Patronatuan gertatzen den bezala.

DESARROLLOA ETA INGURUGIROA

■ Azken urteetan kontuan hartzeko susto kimikoak izan dira Hernanin eta emergentzia plana ere martxan jarri behar izan da. Zuen ustez herritarrek ba al dute zertaz kezkaturik?

Gure iritzirako, ingurugiroa da eta izango da gaurko eta biharko Udal Gobernuen seilua, bai orain eta bai gero. Bizi kalitatearen adierazgarria da, eta hala izango da. Hernaniarrek ezeren beldurrik ez izateko modurik onena da beti kontu haudiz jokatu eta egin beharreko kontrolak egitea, eta



Jose Morcillo PSE-EEko Udal Talde burua.

arduradun guztiei implikaziorik haundienas eskatzea.

■ Udal Gobernua Abiadura Haundiko Trenaren proiektuaren kontra jarri da. Nola baloratzen du Alderdi Sozialistak tren horrek Hernanin izango duen eragina.

Alderdi Sozialista beti egongo da progreso eta eusteko moduko desarroiloaren alde. AHTa sinbolo estrategiko bat da garraioaren etorkizunean eta ez gara inoiz egongo Abiadura Haundiko Trena Euskadin izatearen kontra.

UDAL HAUTESKUNDEAK

■ Jose Morcillo izango alda berriz ere PSE-EEko alkategaia datozen Udal Hauteskundeetan?


Hernaniko Alderdi Sozialistaren kandidatoa herriko Agrupazioak esango du. Laneari dira horretan.

■ Zein hipotesi darabilki-zue paktoei buruz?

Momentu honetan Hernaniko Alderdi Sozialistak ez dauka Udal Hauteskunde ondoreneko paktoei buruz ezer esatekorik.

SANDIUSTERRIKO ZAHARREN EGOITZA

“Diputazioaren eta Udalaren aldetik jarrera negoziatzaile haundiagoa behar du. Sensibilidate haundia eskatzen duen terreno da eta langileen lana klabea da hor. Horrexegatik, Ongintzako buruak asko negoziatu behar du eta ez sindikatuk ekin etengabe konfliktoan ibili, orain gertatzen den bezala.”



Koteto Ezkurra erakustaldi ederra eman zuen ostegunean Galarretan, Zeberio II eta Lizasoren kontra.

Ezkurra-Urko eta Altuna I-Eizagirre liderrak, elkarren kontra Galarretan

BINAKAKO Txapelketako partiduak jokatuko dira gaur Hernaniko Galarreta Jai-Alai frontoia eta Euskalen. Altuna I eta Eizagirre dijoaz lider eta gaur bi horiek Ezkurra eta Urkoren kontra jokatuko dute, Galarretako jaialdiko bigarren partidua. Euskalen, beriz, Ifigo eta Lizasok jokatuko dute Zeberio II eta Aizpururen kontra.

Bestalde, gaur Galarretan beste hiru partidu ere jokatuko dira arratsaldeko 16:00-ean hasiko den erremonte jaialdian: Martinez-Lander/Ziganda-Barrenetxea II, Altuna I-Aizpuru II/ Bitoria-Etxabe, eta Matxin III-Badiola, Sarasua-Etxeberria. □



Hernaniarrak xakean.

Herriko xake Txapelketa bigarren fasean sartu da

HERRIKO Xake txapelketa sartu da bigarren fasean. Aurrenekoan irabazitako partiduak kontuan hartu dira, baina, ez da inor kanpoan gelditu. Oraingoan 16 jokalari pasako dira aurrera. Partiduak otsailaren 8rako jokatu behar dira. □